

Amurrio

Aurkibidea

Udalerria: Amurrio

Sarrera



Aiaraldeko eskualdeko udalerria. Herrigune nagusiaz gain, Administrazio Batza gisa diharduten bederatzi herrigunek osatzen dute udalerria 1976az geroztik: Aloriak, Artomañak, Baranbiok, Delikak, Larrinbek, Lezamak, Lekamañak, Saratxok eta Tertangak.

- **Biztanleak:** 10.014
- **Euskaldunak:** %27,15

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **10**

- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **10**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Arabako euskara

Hizlariak

Julita Burutxaga Otegi

Pilar Isasi

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Etxe ondoan Sorgin-zulo bat

- **Hizlaria(k)**: Isasi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barrenengoa Arberas, Federico
- **Erref**: AMU-002/013
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:22:03. **Bukatu**: 00:23:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: García Uriarte, Imanol
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak,
mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Etxe ondoan, Sorgin-zulo izenarekin ezagutzen zen zulo bat zegoen. Umetan, sorginak irten eta irentsi egingo zutela esanda beldurtzen zuten Pilar. Izaki txarren fama zuten sorginok.

Transkripzioa

- Sorginetaz berba egin entzun duzu?

- Pilar: Bai, sorginek, bai. Sorginen zuloa geure etxe ondoan dago, sorginen zuloba esaten daudie, ta gu txikerrak izen garenien bildurre pasetan handi... Ya han ta, bildurre! Ta sorginek urtengo daudie horti, ta tragauko gatubie sorginek, ta guk karra gora ta karra bihera sorgin zulo aurretik, guk karra eiten genduin, ta sorginok, ba, ez aurien urteiten kanpora, baie sorgin zuloa esaten daudie, han egoan sorgin zuloba...

- Eta zelakoak ei ziren sorginak, ba, ze tipoa zeukaten...?

- Pilar: Ba, ez dakit sorginok, ez dakit zelangoak izango direz sorginok...

- Errubioak edo...

- Pilar: Ez dakit, ez dot ein, ekusi ez dot ein sorginik, baia entzun bai... sorgin zuloa entzun asko!

- Eta txarrak ziren sorginak?

- Pilar: E, txarrak, bai, kusiten daudienien zulora sartute euriezan umiok barrure, sorgin zulora! Esaten eudien, esaten eudien!

- Esate eudien...
- Pilar: Guk ekusi ez dogu egin, baie, entzun, entzun...
- Eta badakizu konturen bat edo...
- Pilar: Ba, ez dakit, sorgin konturik ez dakit...
- Zer egiten zen... zer egiten zuten hor sorginek?
- Pilar: Sorginek, sorginek kositen ba... kositen bazatubie, ba zulora sartu, esate eudien. Guk ekusi ez dogu egin sorginik, entzun, sorginek dao, hor zulo horretan, han sorginek dao...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Pilar auzo euskaldun batean jaio zen (AMU-002/002)

Pozik dago Pilar sukaldeko epelean, artoa aletzen. Negua ona joan da, osasun arazorik gabe. Pilar Baranbio Goikoa da, auzo euskalduna izandakoa. Auzotar guztiak euskaldunak ziren. Etxean denak egiten zuten euskaraz, eta erdaraz jarduten zuena zigortua izaten zen. Gaur egun ez du inork euskaraz egiten Baranbion.

2. Ezkonduz gero ez zuen euskaraz egin (AMU-002/004)

Baranbion ez omen dago euskaldunik jada. Ezkondu eta gero Pilarrek ez zuen gehiago euskaraz egin. Dena 'erdiara' (erdaraz) egiten zuen. Euren etxea erreta, ezkondu eta gero agure zahar baten etxera joan ziren bizi izatera. Ugazaba berria zaindu egin behar zuen, baina sarritan mozkortuta etortzen omen zen. Petrolio ontziarekin argituta eramaten zuen ugazaba ohera.

3. Lurra laian lantzen zuten (AMU-002/005)

Ugazabaren seme-alabak Ameriketarik etorri zirenean, aita eurekin hartu zuten. Pilar ere eraman nahi izan zuten aitarekin batera, baina Pilarrek ez zuen nahi izan. Lurra laian eta idiekin lantzen zuten, gero arto, patata etab. ereiteko.

4. Gaztainak saltzeko batzen zituzten (AMU-002/006)

Gaztaina kirikinoak (morkotsak) soroan metatzen zituzten usteldu arte, eta orduan eskutilerarekin (eskuarea) jo eta alea jasotzen zuten zakuetan. Gurdian etxera eraman eta saldu egiten zituzten gaztainak. Diru horrekin Domu Santuetan hildakoengandik mezaren bat ematea lortzen zuten.

5. Gaztetan igitaiarekin garotara (AMU-002/007)

Gaztetan igitaiarekin garoa ebakitzera joaten ziren basora. Urdai pusketak makila baten puntan erreta jaten zituzten. Abarketak nola garbitzen zituzten azaltzen du. Orduko diru eta txanponen izenak aipatzen ditu.

6. Gaztainak batzeko goizeko laueta jaiki (AMU-002/009)

Gaztaina batzera joan aurretik erretxea (labesua) egiten zuen, goizeko laueta jaikita. Opilak labetik atera eta gaztainadira joaten ziren. Etxean arazoren bat bazen, izara jartzen zuten balkoian gaztainaditik ikusi ahal zezaten. Gurdia kirikinoz (morkotsez) kargatu eta soro batera eraman eta husten zuten.

7. Garrastatxuko erromeria (AMU-002/010)

Andra Mari Urrukueta eguna ospatzen zuten irailean Garrastatxu auzoan. Zezenak ere egoten ziren Garrastatxun. Bilbotik joaten zen danbolinjolea eta aurrezkoak dantzatzen ziren. Erromeria handia egiten zen.

8. Santa Agedako abestiak (AMU-002/011)

Pilarrek bere gaztaroko Santa Ageda eguneko koplak kantatzen ditu. Hasieran kosta egiten zaio gogoratzea.

9. Sehaska-kantak (AMU-002/012)

Umeei abesten zieten kantuak. Baranbioko euskararen bereizgarri batzuk.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com